



Maiatzaren 24ko hauteskundeen ondoren, dagoeneko udalak eratu dira. Herritarrek, bozkatzeko eskubidea baliatuta, tokiko ordezkariak aukeratu dituzte. Printzipio demokratiko horrek udal autonomiaren izaera politikoa erakusten du; tokiko benetako Gobernuak gara.

Tamaina, errealitate sozial eta kolore politiko desberdinak dituzten udalerrietako hautetsiak gara. Elkarrekin, irudi plural eta askotarikoa osatzen dugu, non bakoitzaren berezitasunak eta identitateak kontakizun komuna, hau da, euskal idalgintzaren kontakizuna, ehuntzen duten.

2015-2019 legegintzaldiko lehenengo lerroak idazten hasi gara udalak. Epe honetarako, erronka handiak daude tokiko esparruan, baita aprobeztatzen jakin behar ditugun aukerak ere. Etorkizuna ez da bat-batean sortzen; udalerriak garatzeko, erakunde guztien lana eta elkarkidetzak behar dira.

Eta, tokiko politika, hain zuzen ere, pertsonok egiten dugu. Alkateok eta zinegotziok ilusioz ekiten diogu herritarrek agindutako eginkizun garrantzitsuari: gure auzotarron bizitza hobetzeko xedez, modu azkar, eraginkor, garden, arduratsu eta zintzoan lan egitea. Pertsonetatik gertu egon behar dugu, hautetsi gisa betetzen dugun zerbitzu publikoaren bokazioan oinarrituta.

*Después de las últimas elecciones del 24 de mayo ya se han constituido los nuevos ayuntamientos. Es la ciudadanía quien ejerciendo su derecho al voto ha elegido a sus representantes locales. Este principio democrático evidencia la naturaleza política de la autonomía municipal, somos auténticos Gobiernos locales.*

*Somos electas y electos de municipios con diferentes tamaños, realidades sociales y colores políticos. Juntos hacemos una foto plural y diversa, donde la particularidad e identidad propia de cada uno teje un relato común, el del municipalismo vasco.*

*Los ayuntamientos hemos empezado a escribir las primeras líneas de la nueva legislatura 2015-2019. Un nuevo tiempo en el que se presentan importantes retos en el ámbito local, y también oportunidades que debemos saber aprovechar. El futuro no surge por generación espontánea, el desarrollo de nuestros municipios requiere del trabajo y la colaboración de todas las instituciones.*

*Y en concreto, la política local la hacemos personas. Alcaldesas y Alcaldes, Concejales y Concejales que afrontamos con ilusión la importante misión que nuestra ciudadanía nos ha encomendado: trabajar con diligencia, eficiencia, transparencia, responsabilidad y honradez para mejorar la vida de nuestras vecinas y vecinos. Se trata de estar cerca de las personas, desde nuestra vocación de servicio público como electas y electos locales.*

## **Imanol Landa Jauregi**

Getxoko Alkatea | Alcalde de Getxo

EUDELEko Elkarteburua | Presidente de EUDEL